

BERTAKO ARKUMEA BEREIZTEKO ZIGILUA SORTU DU LARSABI ELKARTEAK

Euskal baserrietan naturalki eta modu tradizionalen hazitako latxa arkumearen kanpaina azaroan hasiko da. Ekoizleek bi berritasun garrantzitsu aurkeztu dituzte, gaur, Zaldibiako Goizanen. Batetik, Larsabi elkarteak sortu dute, lehenago Gipuzkoa mailan lan egiten zuen Garsabiko kideek. Hego Euskal Herrira zabalduko dute bilketa eta merkaturatze bateratuaren zerbitzua.

Latxa ardia dagoen eremu osoko —Hegoaldeko lau herrialdeetan— artzainak batu ahal izango dira Larsabira. Astelehenean (urriak 16), bi batzar ireki egingo dituzte, elkartearen helburuak, erronkak eta funtzionamendua azaltzeko: Aguraingo udaletxean (11:00) Araba, Bizkai eta Nafarroako Sakanako artzaintzat; eta Zaldibiako Goizane egoitzan (15:00), Gipuzkoako eta Nafarroako artzaintzat.



Larsabi elkarteko zuzendaritzako kideak: Ander Barandiaran bokala, Mariano Imaz lehendakaria eta Arantxa Garaiburu lehendakariordea, gaur, Zaldibian. Atzean, Larsabik bertako arkumea bereizteko diseinatu duen zigilua. /Aimar Maiz

Bestetik, bertako arkumea dendetan bereiziko duen ikurra sortu dute. Latxa arkumea esapidea du, artzain-makila batekin eta arkume buru batekin hornituta. Amaren esnearekin soilik hazitako arkumea dela adieraziko du, zuzenean baserrietik merkaturatua. Larsabiren arabera, bertako arkume ekoizpenaren %90 Euskal Herritik kanpora joaten da gaur egun; euskal merkatura, berriz, kanpotik “era intentsiboan, amaren esnerik gabe, esne artifizialarekin eta zebaderoetan” hazitako produktua sartzen da. Iaz “inoizko kopuru handiena” iritsi zen, eta “kaosa” eragin zuen sektorean.